

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HIRIGINTZA SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Hasierako onespena ematea Gasteizko Aretxabaleta-Gardelegi 19. sektoreko OR 7-1-f lursailaren xedapen-azterketaren aldakuntzari**

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 30ean egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Aretxabaleta-Gardelegi 19. sektoreko OR 7-1-f lursailaren xedapen-azterketaren aldakuntzari, zein Opacua SAren ordezkariak aurkeztu baitzuen 2017ko ekainaren 20an.

2. Hasierako onspena jaso duen azterlan xehearen aldakuntza jendaurrean jartzea, hoguei egunez, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, nahi duen orok aztertzerik izan dezan, baita alegazioak aurkezterik ere.

3. Aldakuntza indarrean jarri arte eta, edonola ere, urtebetez gehienez, ez da Gasteizko Aretxabaleta-Gardelegi 19. sektoreko OR 7-1-f lursaila lur zatikatzeko eta bertan eraikitzeko baimenik emango.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko ekainaren 30ean

*Alkate lehendakaria*  
**GORKA URTARAN AGIRRE**